

PROSTITUZIOARI BURUZKO DISKURTSO HEURISTIKOAREN AZTERKETA

Irakasgaia: Gizarte Langintzarako Psikologia

Irakaslea: Santiago Palacios

Maila: 1.maila

Ikasleak: Iraide Etxabe, Maddi Azkune, Maider Bengoetxea, Kristiña Fidalgo, Nerea Diaz eta Ane Blazquez

AURKIBIDEA.

GAKO-HITZAK

1.SARRERA	2
2. AUZIAREN EGOERA	3
2.4 Bateratze falazia	4
2.5 Baikortasun errealista	4
2.6 Egokitzea	4
3. IKERKETA	5
3.1. Helburuak eta hipotesiak	5
3.2. Parte hartzaileak	6
3.3. Prozedura	6
4. EMAITZAK	6
4.1 Prostituzioa: esteriotipoak/usteak	6
4.2. Heuristikoak eta haien eragina	8
5. EZTABAIDA eta ONDORIOAK	10
6. BIBLIOGRAFIA	11

GAKO-HITZAK: Bigarren Hezkunta. Unibertsitate-hezkuntza. Arrazonamendu heuristikoa. Kulturarteko hezkuntza. Prostituzioa. Estereotipoak.

1. SARRERA

Prostituzioa gizarte guztietan egon den lanbiderik zaharrena da. Aurreiritzietatik harago, egiaz gutxi daki jendeak jarduera horren gibelean ezkututzen den errealitateaz eta, are gutxiago, sexu zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonez, haien eskubideez, arazoez eta ezaugarriez (Maddi Ane Txoperena eta Maite Asensio, 2016). Horregatik, ez da erraza esanahi guztiak jasotzen dituen definizio bat osatzea, DRAEk horrela definitzen duen arren: beste pertsonekin, diru truk, sexu harremanak dauzkanak diharduen jarduera. Euskal Herrian ordenantzek, legeek eta gizarteko joeren eskutik geroz eta ikusezinagoa den lanbide bat da nahiz eta emakume askok lan hori egin eta bezeroak ere ugari izan. Gainera, familia askoren sostengu ekonomikoak dira (Maddi Ane Txoperena eta Maite Asensio, 2016). Diego Lodeirok (Askabide elkarteko kideak) esan duen bezala, prostituzioa oso mundu konplexua da, heterogeneoa, jorratzeko zaila, eta beti geratuko da zerbait kanpoan. Baina argi dago oinarrizko premisatzat bezeroa gizonezkoa dela eta prostituzioak emakumezko aurpegia duela.

Estereotipo eta aurreiritziekin estuki lotuta dagoen lanbide bat denez, haiek aztertu nahi izan ditugu lan honetan eta horretarako, heuristikoek honengan duten eragina nolakoa den behatu dugu.

2. AUZIAREN EGOERA

Tvesky eta Kahneman heuristikoak aztertzen hasi ziren 70. hamarkadaren hasieran. Azterketa horretatik sei heuristiko mota atera ziren: adierazgarritasunaren heuristikoa, eskuragarritasunaren heuristikoa, ainguratze edo doitze heuristikoa, bateratze falazia, baikortasun errealista eta egokitzea (Palacios Navarro, Santiago. 1996-2010).

Euren ikerketan arrazionaltasun mugatua erabili zuten eta bertan beraien estimazio probabilistikoetan sistema arauemaileak erabili beharrean, heuristiko kopuru zehatz batzuetan oinarritzen zirela azaldu zuten. Beraz, atera zuten ondorioetako bat heuristikoak nabarmenago egiten zirela informazio probabilistikoekin haritzen zirenean izan zen.

Gigerenzerrek defendatzen zuen heuristikoen ikuspuntutik hartutako perspektiba aurrez esan dugunaren ezberdina dela. Eta gainera, arrazionalitatearen beste ikuspegi bat ere ematen du: arazo konplexuak estrategia sinpleak erabiliz hobeto konpondu daitezkeela. Gainera, informazio guztia ez daukagunean, heuristikoak izatea oso erabilgarria dela dio, bai erabaki edota iritzi indibidual zein taldekoak hartzerako orduan (Palacios Navarro, 2010).

Prozesatze dualeko ereduak gainazaleko arrazonamenduaren (lehenengo sistema) eta arrazonamendu zabalaren (bigarren sistema) arteko konparaketa bat egiten du. Honen ustez

gainazaleko arrazonamenduko sistemako operazioak azkarrak dira, ez dute ahaleginik eskatze eta emozioz beteta egoteaz gain ohituren arabera da.

Arrazonamendu zabala aldiz, arrazonamendu kontzientea eta deliberatua da, gainera gainazaleko arrazonamendua baino geldoagoa da eta ahalegina eskatzen du.

Erabakiak beraz bi sistema hauengatik hartzen ditugula esan dezakegu. Baina erabaki horiek intuitiboak izan daitezke, gainazaleko arrazonamendua erabiliz edota hausnarketa baten ondorioz hartutako erabakiak izan daitezke, arrazonamendu zabala erabiliz.

2.1 Adierazgarritasunaren heuristikoa

Honen ustez, informazio zehatz batek prototipoarekin duen antzekotasunean oinarritzen gara probabilitate epaiketak egiterako orduan. Hau da , A eta B zenbateraino diren adierazgarriak, probabilitateak kontuan izan gabe.(Palacios Navarro, Santiago.1996-2010)

Hemengo hainbat errore sistematikoak,aurreiritzitan oinarritzen dira eta batzuetan hainbat jarrera justifikatzeko erabiltzen dira. Adibidez, Prostituzioan lanean dabilen pertsona baten jarrera epaitu beharko bagenu estereotipoetan oinarritzeko joera izango dugu, probabilitateko datuak albo batera utzita. (Palacio Navarro,Santiago.1996-2010)

2.2 Erabilgarritasuna edo eskuragarritasunaren heuristikoa

Gertaera baten probabilitatea gertaera horren adibideak gogoratzeko erraztasunaren arabera kalkulatu da (Higgins, 1996), gehiagotan gertatzen diren gauzak hobeto gogoratuko ditugulako.

Baina batzuetan erraz gogoratzen ditugun gauzak ez dira adierazgarrienak eta beraz probabilitatea ez da zuzena izango.Hau da, batzuetan gertakariren bat beste gertakari batekin lotzen dugu eta horregatik gogoratzen dugu eta beraz ez da maiztasun erreala edo naturalarekin bat etorriko. Gainera gerora aterako ditugun ondorioak ere ez dira zuzenak izango (Palacio Navarro,Santiago. 1996-2010).

2.3 Ainguratze edo doitze heuristikoa

Zalantza sortzen duten datu batzuen inguruan epaiketak egiten ditugunean erabiltzen dira eta gero abiapuntu bat erabiliz zalantza hori murriztea edo gutxitzea lortuko da gainera abiapuntu horretan oinarrituta azken ondorioak lortuko dira.

Hemendik sortu daitekeen errore handiena datuak zuzenak ez izatea da, eta beraz gero egingo diren estimazioak ere okerrak izango dira, aurreko datuen arabera izango baitira.

2.4 Bateratze falazia

Logikoa da, non egoera zehatz bat probableagoa den egoera orokor bat baino. Gure kasuan esaterako, probabilitate handiagoa dago emakumea futbolaria izateko, baletoko dantzaria izateko baino. Baina, jarri dugun emakumearen deskripzioa balet dantzariarekin lotzen dugu, beraz egoera zehatzari garrantzi gehiago ematen diogu egoera orokorrari baino.

2.5 Baikortasun errealista

Egoera bat gertatzeko aukera gehiago dagoela sinesten denean agertzen dela esan genezake. Esaterako, pentsatzea zuk larunbat gau batean ligatzeko aukera gehiago daukazula beste pertsona ezezagun batek baino.

Konfiantzaranzko joera zalantzaren aurrean, egoera bat orokortu egiten da nahiz eta egoera hori ezeztatzen duen portzentaje altua izan. Esaterako, herri bateko biztanleen %60ak alderdi politiko bati bozkatu dio, EAJ adibidez. Esaldia 3-4 hitzetan laburtzeko esatean, "gehiengoak alderdia onartzen du" esango zuten inkestatuek, kontuan hartu gabe %40ak ez duela alderdi hori bozkatu.

2.6 Egokitzea

Esaldi berdina portzentajeekin eta portzentaje horri dagokion zenbakiekin ezarriz gero, emaitza ezberdinak irtetea dela esan dezakegu. Hau hobeto ulertzeko, adibide bat ezar dezakegu: Espainian biztanleriaren %21 langabezian dagoela esatea edo 4 milioi pertsona daudela langabezian esatea ez da berdina, 4 milioik gehiago harritzen edo kezkatzen duelako jendea.

3. IKERKETA

3.1. Helburuak eta hipotesiak

Ikerlanak bi helburu ditu: Jendeak prostituzioari buruz dituen usteak ezagutzea eta heuristikoen erabilera frogatzea eta hauek prostituzioaren inguruko usteetan eragina duten ikustea. Ikerketa honetan planteatzen diren hipotesiak bat datoz honako helburu hauekin:

1. Prostituzioaren inguruko estereotipoak zein neurritan ditugun barneratuta ikustea. Nagusiki bi alderdi bereiztea espero da, alde batetik irekiagoa eta beste alde batetik itxiagoa. 1. taldeak prostituzioa errespetatzea edo duintasunez tratatzea espero da eta neurri batean ideia ez hain matxistak izatea. 2. taldeak ordea ideologia zaharkituago bat izatea espero da, oraindik ere emakume prostitutekiko aurreiritzi askorekin. Horrez gain, inguruan gertatzen denarekiko interesa izateak, irakurtzeak, formakuntzak jaso

izanak... errealitate zehatzago bat izatea espero da eta aurreiritzi gutxiagorekin jokatzeari.

2. Heuristikak eta prostituzioa: Planteatutako galderetan erabilitako heuristikoen teknikak erantzunetan eragina izatea espero da.

Hipotesiekin jarraituz, Ainguratzearen kasuan espero genuen guk emandako datuan ainguratzeari. Hau da, guk zenbaki bat eman diegu eta espero dugu haien erantzuna zenbaki horren ingurukoa izatea. Adibidez, %25 esan diegunean haien erantzuna %20 eta %30 artekoa izatea.

“Falacia de la conjunción”-eri dagokionez, espero dugu jendeak 3.aukera aukeratzea, hau da, bi ezaugarri dituenak. Azken finean, jendeak errazago aukeratzen dena zehatzagoa dena orokorra baino.

“Tasa base”-ri dagokionez, lehenengo galdeketan kasu bat azaltzen da eta bi kopuru ematen dira (bata bestea baino handiagoa). Kasu horretan prostituta zein den galdetzen da eta espero duguna da gehienek kopuru txikiena aukeratzea, 1. sistemarekin erantzungo dutelako, hau da, estereotipoari jarraituko diotelako; naiz eta probabilitate gutxiago izan. Bigarren galdetegian aldiz, galdera berdina planteatzen da baina oraingoan 2. sistemarekin erantzutea espero da, estereotipoak probabilitate handienarekin egingo baitu bat.

Markoari dagokionez, espero duguna da, A galdetegian eta B galdetegian izandako erantzunak ezberdinak izatea, datu berdinak erabili arren galdetzeko modua edo formulazioa ezberdina izan delako. Hau da, batean ehunekoa ematen da eta bestean kopuru osoa, kopuru osoa zenbaki handiagoa denez, jendearentzat larriagoa izatea espero dugu.

“Efecto foco”-ri dagokionez, A galdetegian emakume bati buruz datu gutxi eman ditugu eta datu horietako bat prostituta dela izan da. B galdetegian, prostituta denaren datuaz gain beste datu asko jarri ditugu, bizitza zoriontsuago bat izan dezakeenaren adierazletzat. Beraz, kasu honetan A ereduaren zorientasun maila baxuagoa duela esatea espero dugu B ereduaren baino.

“Punto ciego”-ri dagokionez, guk espero dugu jendeak prostituta batengan eraso bat gertatzean erasotzat ez hartzea, ordainduta dagoenez langileak bezeroak nahi duen oro egin beharko lukeela usteko dutelako.

3.2. Parte hartzaileak

Galdetegian 155 pertsonak parte hartu dute, bi galdetegi desberdinetan. Hauetatik gehiengoak beraien burua emakume bezala definitu dutenak izan dira, 101 emakume hain zuzen ere. Gizonak, 38 izan dira eta 6 bestelakoak. Adin tartea 13 eta 63 bitartekoa izan da, baina gehiengoak 18 izan ditu, 68 pertsonak hain zuzen ere. Jatorriari dagokionez, guztiak izan dira Gipuzkoarrak eta Bizkaitarrak eta bat Ukraniarra. Ikasketei dagokienez, guztiek dituzte ikasketa minimoak, batzuk oraindik dbh edo batxilergoa egiten, beste batzuk unibertsitatean edo goi mailako graduetan eta beste asko lanean edo erretiratuak.

3.3. Prozedura

Ikerketaren hasieran, giza-talde aukeratu genuen: prostituzioa. Lehendabizi giza-talde honen inguruan existitzen diren estereotipoak aztertu genituen, 20 estereotipo hain zuzen ere. Ondoren, benetako errealitatearen datuak bildu eta hauekin konparatu genituen, datu errealak atera nahian. Ikerketarekin jarraituz, heuristikoez baliatu ginen estereotipoen eta datu errealen arteko diferentziak ateratzeko helburuarekin. Amaitzeko, hainbat galdera eta egoera planteatu genituen bai estereotipoak eta bai datu errealak azaleratzeko. Behin guzti hau eginda eta galdetegia prestatuta, gure inguruan zabaldu genuen: 155 pertsona hauei informazio pertsonalaz gain prostituzioaren inguruan dituzten usteei buruzko galderak egin dizkiegu, baita prostituzioaren epaiketan eragina izan dezaketen heuristikoak erabiliz egoera edo galdera batzuk planteatu dizkiegu. Bi galdetegi egin ditugu A eta B. Bietan ageri ziren galdera berdinak, heuristikoak zatian izan ezik. Atal honetan 6 galdera desberdinak ziren batean eta bestean, teknika berdina erabiltzen bazen ere. Honen helburua galderak alderatzea eta hortik konklusioak ateratzea da.

4. EMAITZAK

4.1 Prostituzioa: estereotipoak/ustek

Estereotipoak	Erantzunik ohikoena A	Erantzun ohikoena B	Orokorra
Prostituzioan dabilen emakume bat beste edozein emakumek baino duintasun gutxiago dauka	Ez %86,8	Ez %68,8	%77,8
Prostitutek higiene gutxi dutela uste da	Otik-5ra: 5 zenbakia %29,7	Otik-5ra: 4 zenbakia %25	-----

Prostitutek erropa estua eta motza erabiltzen dute	Estua eta laburra %64,4	Estua eta laburra %65,6	%65
Prostituzioan lan egiten duten emakumeak takoiak erabiltzen dituzte beti	Takoidun sandaliak/botak %84,6	Takoidun sandaliak/botak %95,3	%89,95
Prostituzioan lan egiten dutenek seme-alabak izaten dituzte	Bai %84,6	Bai %57,8	%71,2
Baietz erantzun baduzu , zergatik dela uste duzu	Beste bat %71,4	Beste bat %81,3	%76,35
Zenbat haur izaten dituztela uste duzu	1-2 haur %69,1	1-2 haur %60,9	%65
Prostitutek prebentzio gutxi erabiltzen dute	Bai %36,3	Bai %31,3	%33,8
Antisorgailuak erabilia haurdunaldiak eta gaixotasunak izaten dituztela uste duzu	0-5ra: 3 zenbakia %33	0-5ra: 3 zenbakia %23,4	%28,2
Prostitutekin pentsatzen dugunean, pertsona triste eta behartu baten irudia etortzen zaigu burura	Bai %63,7	Bai %64,1	%63,9
Prostituitu egiten direnak drogo menpekotasuna dutela esaten da	Ez dakit %53,2	Ez dakit %46,2	%49,7
Prostituzioan dabilen pertsona bat ikusiz gero , hauetako ze egoeratan dagoela pentsatuko zenuke	Bikotekiderik gabe %82,4	Bikotekiderik gabe %89,1	%85,75
Prostituten zerbitzuak noiz ematen direla uste duzu	Gauen batez ere %86,8	Gauen batez ere %85,9	%86,35
Prostituzio munduan genero indarkeria asko dago	Ez, ia guztiek eraso bat jaso dute %63	Ez, ia guztiek eraso bat jaso dute %62,5	%62,75

Prostituzioko kontsumidore gehiengo edo parte handi bat gizonezkoak dira	Bai %87,9	Bai %93,8	%90,85
Aurreko galderan bai erantzun baduzu , zein adin tartekoak direla uste duzu	Helduak, 30-60 urte bitartean %88,5	Helduak, 30-60 urte bitartean %72,1	%80,3
Kontsumitzaileak emakumeak ere badirela uste duzu	Bai %82,4	Bai %76,6	%79,5
Aurreko galderan bai erantzun baduzu , zein adin tartekoak direla uste duzu	Helduak, 30-60 urte bitartean %81,1	Helduak, 30-60 urte bitartean %73,5	%77,3

4.2. Heuristikoak eta haien eragina

4.2.1. Falacia de la conjuncion

Heuristiko honetan, emakume prostituta bati egotzi ahal zaizkion ezaugarrien inguruan galdera bat planteatu dugu hiru erantzun eman ditugu aukeran: lehenengoan ezaugarri bat, bigarrenean beste bat eta hirugarrenean biak batera. A galdetegian, ezaugarriak estereotipoetan oinarritutakoak izan dira eta B galdetegian ez. Guk, laginek 1. sistema erabiltzea eta ondorioz, hirugarren erantzuna aukeratzea espero genuen. Hau da, bi ezaugarriei bakar bati baino garrantzia gehiago ematea. Hauek izan dira galderak:

(A galdetegia): *Esther-ek prostituzioan lan egiten du: 1. Etorkina da, 2. IESA dauka eta 3. Etorkina da eta IESA dauka.*

Erantzunei erreparatuz, ikus dezakegu laginaren %71,4ak lehenengo erantzuna aukeratu duela, %12,1ak bigarrena eta %16,5ak hirugarrena. Ondorioz, ikus dezakegu gehiengoak 2. sistema erabili duela. Beraz, ez dira heuristikoan erori eta ez da gure hipotesia bete.

(B galdetegia): *Esther-ek prostituzioan lan egiten du: 1. Euskalduna da, 2. Ez dauka IESA eta 3. Euskalduna da eta ez dauka IESA.*

Kasu honetan, ikus dezakegu %18,8ak 1. erantzuna aukeratu duela, %15,6ak 2. erantzuna eta azkenik, %65,6ak 3. erantzuna. Hau ikusita, ondoriozta dezakegu gehiengo heuristikoan erori dela, hau da, bi ezaugarri batera egoteari bakarrari baino garrantzi gehiago eman diote. Hau ikusita, bi galdetegiak konparatuz beste hipotesi bat sortu dugu: Zergatik estereotipoak erabili ditugun galdetegian ez dira erori eta bestean bai?

4.2.2 Markoa

Honako heuristikoan aldiz, A eta B galdetegian galdera bera egin dugu haurdunaldiaren interbentzioari bideratuta. Bi galderetan aldatu duguna zifra emateko edo adierazteko modua izan da. Lehengo galdetegian ehunekoa erabiliz, gure helburua zifra txikiago bat irudikatzea zen, bigarrenean aldiz, zenbaki ezberdin eta altuago bat irudikatu nahi da inkesta egiten ari denaren arreta lortzeko eta beste galdetegikoa baino handiago iruditzeko.

Hauek izan dira galderak:

(A galdetegia): *Espainiar estatuan prostituzioan lan egiten duten emakumeen %40ak interbentzio boluntario bat egin du. Datu hau larria dela uste duzu? % 89ak bai, eta %11ak ez. Honekin ikus dezakegu, guk espero genuena ez dela bete, bigarren mekanismoa erabili dutelako galdera hau erantzuterako unean.*

(B galdetegia): *Espainiar estatuan prostituzioan lan egiten duten 40.000 emakumek interbentzio boluntario bat egin du. Datu hau larria dela uste duzu?*

Galdera honen emaitzei dagokienez, inkesta egin dutenen %95'3 ak larria dela diote eta bestalde, inkesta egin dutenen %4,7 ak ez dela larria deritzote. Beraz emaitza hauek gure hipotesiak baieztatzen dituela esan dezakegu eta gainera frogatzen digu inkesta egin dutenen gehiengoak lehenengo sistema erabili dutela galdera hau egiterako orduan eta heuristikoan erori direla.

4.2.3. Tasa Base

Heuristiko honi erreparatuz, bai A galdetegian eta bai B galdetegian galdera berdina planteatu dugu, baina erabilitako datuak trukaturik. Hau da, bi galdetegietan galdera berdina izan da baina A galdetegian diskotekako 20 emakumeetatik 15, elegante jantzita doaz eta 5 arropa estu eta laburrarekin normal. B galdetegian berriz, alderantziz.

Hauek izan dira galderak:

(A galdetegian): *Diskoteka batean 20 emakume daude. Horietatik 15 elegante jantzita doaz, lagunekin hitz egiten ari dira eta oso gutxi dantzatzten dute. Beste bostak, arropa estu eta laburra daramate, brillo asko dituzte eta dantza sensualki eta gorputz osoa mugituz egiten dute. Horietatik zein uste duzu izan daitekeela prostituta?*

Emaitzei dagokionez, subjektuak heuristikoan erori dira. Hau da, kasu honetan heuristiko eta estereotipoa bat datoz; datuetan oinarritzen bagara, probabilitate handiagoa dago 15 horietako emakume bat izateko prostituta gehiengo delako. Ordea, prostituten estereotipo

bat arropa estua eta laburra erabiltzea denez gero, subjektuen %74,7-k lehenengo sistemarekin pentsatu dute bakarrik eta %25,3 izan dira heuristikoan erori ez direnak.

(B galdetegia): *Diskoteka batean 20 emakume daude. Horietatik 15ek arropa estu eta laburra daramate, brillo asko dituzte eta dantza sensualki eta gorputz osoa mugituz egiten dute. Beste bostak, elegante jantzita doaz, lagunekin hitz egiten ari dira eta oso gutxi dantzatzen dute. Horietatik zein uste duzu izan daitekeela prostituta?*

Kasu honetan, emaitzei erreparatu gero, A galdetegian ez bezala bigarren sistema erabili dute, estereotipoan oinarritzeaz gain datuak ere kontuan hartu dutelako subjektuen %76,6-k.

5. EZTABAIDA eta ONDORIOAK

Gaur egun, prostituzioaren informazioa oso urria eta estereotipoz betea izan zitekeela pentsatu genuen, eta horregatik ikerketa honek bi helburu ezberdin izan ditu. Batetik, aztertzea gai honen inguruan adin, sexu eta bizitokia kontuan izanik ditugun ideiak ea ezberdinak diren. Bestetik aldiz, arrazonamendu heuristikoaren ikuspegitik prostituzioari eta bere inguruari buruzko diskurtsoaren barruan epaiketa egiteko erabiltzen ditugun mekanismo nahiz estrategiak aztertzea. Aitzitik, ikus dezakegu, prostituzioaren inguruko estereotipoak nabariak direla baina baita jarrera eta iritzi ezberdinak daudela gaiarekiko.

Nahiz eta, nagusiki prostituzioarenganako interesa azaldu, eta espero genuen baino estereotipo gutxiago izan, hala ere informazio eza nabaritu da hainbat galderetan, eta estereotipoen barneraketan. Hala ere, hau aipagarriagoa eta esanguratsuagoa izan da, adin altuagoko pertsonetan. Azkenik, esan beharra dago, prestatutako inkesta honetan, heuristikoen zatia geneukala garrantzi handikotzat, eta hainbat galderetan “jaustea” espero genuen arren, aurkakoa gertatu dela. Ez daa beti gertatu naiz esperotakoa, baina ikerketaren helburua hein handi batean lortu dugun. Adibide ditugu, lehen aipatu bezala “falacia de la conjuncion”, “marco” eta “tasa base” heuristikoak.

Lehenengoan “falacia de la conjuncionen” ikus dezakegu, estereotipoak erabili ditugun A galdetegian ez dira erori eta B galdetegian aldiz, erori egin direla. Lehenengo galdetegian, bigarren mekanismoa erabili dutela ikus daiteke, eta hau zergatik izan den pentsatu dugunean, gure lagina A galdetegi horretan gaztea dela eta gaiarekiko sentsibilitatea duelako, izan daitekela pentsatu dugu. Bestetik, baita bortitzegia gera zitekeelako, etorkina du eta ihesa dauka ematea, eta horregatik etorkina soilik eman dutela uste dugu. Hala ere, beste zenbait konklusiotara iritsi gara, orokorrean etorkinak (afrikarrak direnean) bide gogor eta zaila izaten dutela aurretik, eta zaila izan ohi dela hona iristea. Horregatik, osasuntsuenak iritsi ohi dira, eta gure laginak hori pentsa zezakeela, uste dugu, hiesa duten pertsonak osasunari dagokionez ahulagoak izango baitira, eta honaino iristen direnak indartsuenak izango dira osasunari dagokionez. Bestetik B galdetegiari erreparatzen badiogu, erori direla ikus dezakegu, lehenengo mekanismoa erabili baitute eta bi ezaugarri zituena hautatu.

Bigarren heuristikoari dagokionez, “tasa base” izango litzate. Hemen espero genuen bezala, biak ongi atera dira, A galdetegian, lehenengo mekanismoa erabili dutelarik eta barneraturik dituzten estereotipoak azaleratu dituztelarik inkontzienteki. B galdetegian aldiz, bigarren

mekanismoa erabiltzeaz gain, datuetan ere oinarritu dira, probabilitateari zegokionez, 20 pertsona horietatik 15 erropa estu eta laburreraz joanik, erantzuna hau izan behar litzateke.

Bestalde, hirugarren heuristikokan, “marcoan”, hemen bi datuak larriak direla ziurtatu dute parte hartzaileek. Ez da guk espero genuena gertatu, helburua ehuneko zenbakietan adierazi ondoren, gutxiago iruditzea zen eta zenbaki osoetan adierazi ostean handiegia izatea. Baina erabili dugun galdera esan beharra dago ez dela zuzenena edo egokiena izan horrelako erantzun bat bilatu nahi izateko. Hau da gure galdera, haurdunaldien interbentzioei buruzkoa izan da, horregatik ehuneko zenbakia adierazi diegunean, ez zaie txikia dela iruditu, zifra bera ere ehuneko handi bat zelarik, gai horren inguruan aritzeko. Honekin esan nahi duguna da, ez dela benetan frogatu heuristiko horren adierazpena, nahiz eta beharbada gutxiago zela iruditu zaien. Beraz ez da galdera egoki bat izan “marco” egiteko.

Erantzun hauek jaso ditugu, eta gure ondorioak izan dira, lagina espero genuena baino sentsibilizatuago dagoela prostituzioaren gai honen inguruan, nahiz eta batzuetan erantzunak adin kontuari dagokionez, pentsamendu zaharkitua adierazi duten. Bestetik, baita ere esan beharra dago, nahiz eta lagina sentsibilizatua egon daitekeen gaiarekin, desira soziala ere nabaritu dela zenbait galderetan. Honekin esan nahi duguna da, nahiz eta anonimoki egin inkesta batzuen artean beldurra eta besteek zer esango duten edota pentsatuko dutenaren beldurrak galdera batzuk beraien ustearen kontra erantzun dituztela. Bestetik, aipatu beharra dago, jendearen estereotipoak nabariagoak izatea espero genuela eta alde horretatik pozgarria da, gizartearen aurrerapena nabaritzea eta gazteen pentsamenduaren aldaketa ideia zaharrekiko. Honekin esan nahi duguna da eboluzio bat izaten hari garelako ideietan eta baita errealitatearekiko jakintzan ere.

6. BIBLIOGRAFIA

Emakunde, (2002). *Emakumeek gauzaturiko prostituzioa EAEn*, Gasteiz.

Palacios Navarro, S. (1996-2010). *Inmigrazioari buruzko diskurtso heuristikoaren azterketa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Txoperena Iribarren, M. and Asensio Lozano, M. (2016). PROSTITUZIOA: IKUSEZINA AZALERA. *Berria*. [online] Available at: https://www.berria.eus/paperekoa/1992/002/001/2016-06-12/prostituzioa_ikusezina_azalera.htm [Accessed 4 Jan. 2019].